

ZUZENDARITZA PROIEKTUA

2018-2022

PUY GARCÍA TARTAS

AURKIBIDEA

AZALA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA
 - 1.1 Proiektu baterako arrazoiak.
 - 1.2 Zuzendaritza- karguak.

2. IKASBIDEA IKASTOLA IPIko TESTUINGURUA.
 - 2.1 Kokapena.
 - 2.2 Ikasleria eta irakasleria.
 - 2.3 Berrikuntza eta aldaketak.
 - 2.4 Barruko eta kanpoko komunikazioa eta partaidetza.

3. IKASTETXEAREN ZEREGINA, METODOLOGIA ARDATZAK ETA HELBURUAK
 - 3.1. Ikasbidea Ikastola IPIko metodologia ardatzak.
 - 3.2. Diagnosia.
 - 3.3 Funtzionamendu eredua.

4. HELBURUAK ETA EBALUAZIOA
 - 4.1. Helburu orokorrak.
 - 4.2. Helburuen ebaluazioa.
 - 4.3. Proiektuaren ebaluazioa.

5. HAUTAGAIAREN CURRICULUMA

AURKEZPENA

Aurkezten dudan Zuzendaritza Proiektua 262/2017 DEKRETUA eta horren gainean egindako berrikuntzek markatzen duten ereduan oinarrituta dago.

1.1 PROIEKTU BATERAKO ARRAZOIAK.

Zuzendaritza Proiektua (ZP) aurkezteko izan ditudan arrazoiak anitzak dira, besteak beste:

- Gaur egun daukagun eta ondo funtzionatzen duen taldea mantendu ahal izateko ikusten zen aukera bakarra zuzendaritza proiektua aurkezteko klaustrokideren bat prest egotea zen. Horrela izanda, nire burua aurkeztu nuen egungo taldekideen babesarekin eta nirekin aritzeko konpromisoarekin.
- Nire egoera pertsonala dela eta, azken bi kurtsuak laguntzaile moduan egotea eta, zuzendaritza lana zer den ezagutzea (hurrengo kurtsora arte badut denbora hobeto prestatzeko). Beraz, kudeaketan aritua naiz.
- Klaustroko inor prest ez egotea eta ikastetxerako onurak: egonkortasuna, orduak...
- Laburbilduz, Ikasbidea Ikastola IPIren funtzionamenduarekiko beharra, kezka eta interesa; eta egungo ekipoa bezala, sinestea lana, ahalegina eta akordioaren bidez dauden arazoei aurre egiterik posible dela.

Hala ere, aipatu behar ditut ere, nire ustez, zein arrazoi dauden zuzendaritzaren jardura erakargarri ez izateko, eta konkretuki, gure ikastetxeak dituen berezitasunak direla eta zelan zailtasun horiek handitzen diren.

- Lanpostuak berak dakarren ardura, lana, eta inplikazio pertsonala.
- Hezkuntza sistemari lotutako arazoen multzoa, bai aurreikusten diren aldaketei lotutakoak, bai aldaketa horiek gizartean dituzten inplikazioei dagozkienak.
- Irakasleria eta hezkuntza administrazioaren arteko bitartekari lanari lotuta dagoela: lehenak sarri etsita egotea, eta bestea gai ez izatea ikastetxeen nahi eta beharrei erantzuteko.
- Horrez guztiaz gain, gure zentroa IPI izateak dakarren berezitasuna: bateratzea helburuak, lan moduak, formazioa, koordinazioaren beharra...
- Zentroaren kokapenak dakartzan zailtasunak: garraioaren kudeaketa, besteak beste.

Gure zentroan, beste guztietan bezala, ZP tresna inportantea da, epe erdi eta luze batean, ikastetxearen norabidea eta identitate ikurrak adierazteko, egonkortasuna bermatzeko eta egiten den lana eginkorra izan ahal izateko.

2017-2018 kurtsuaren hasieran, inork ez zuen uste azken 3 urteetan zuzendaria izan denak (azkeneko 10 urteetan zuzendaritza taldearen partaide) beste bide bat hartu behar zuenik, baina kargua utzi du eta, kurtsuaren erdian erabakiak hartu behar izan dira, ez soilik kurtsu amaiera arte, baizik eta hurrengo urteei jarraipena emateko. Hori dela eta ZPa egitea erabaki nuen. Azken bi kurtsuetan, laguntzaile moduan, tratatu naute taldekide bezala, eta horrela sentitu naiz beti.

Orain arteko Ikasbideako ibilbidea bikaina izan bada ere, badago hobetzerik, eta mila aukera bide berriak jorratzeko, beti ere modu positibo batean eta komunitate kide guztiekin batera. Aurretik esan badut ere, azpimarratzekoa da ZPa nire izenean aurkezten bada ere, ez dela, inola ere, proiektu pertsonala, taldean handi baten ondorioa dela eta denon partaidetza ezinbestekoa izan dela prestatzeko eta, etorkizunean,

burutu ahal izateko, hau da: lidergo partekatuan sinesten dut ikastetxeko ZPa aurrera eramateko, guztion iritzi, iradokizun, kezka eta ilusioak elkartzeko eta, denon artean bidea egiten aritzeko.

1.2. ZUZENDARITZA-KARGUAK

Zuzendaria: Puy García

Zuzendariordea: Maite Loidi

DBH eta BHko Ikasketa Burua: Maria Victoria Pérez

DBH eta Batxilergoko Ikasketaburuondoakoa: Lurdes Makaide

HH eta LMHko Ikasketa burua: María Montón

Idazkaria: Jaione Larrañaga

Aurkezten dudan talde osaketaren arrazoiak:

- Lan giro ona egotea bermatuta dago (Funtzionamenduaren inguruko irizpide antzekoak eta elkarlanean ohituak).
- Taldekideek ikastetxea ondo ezagutzea.
- Esperientzia handiko pertsonak izatea.
- Zuzendaritza taldearen lidergo pedagogikoa zein berritzailea aurrera eramateko gogoia.
- Ikasleen zein irakasleen inplikazio maila altua lortzeko lan egiteko apostua egiteko nahia.
- Guztiok bat etortzea eskola komunitatea osatzen dugunok (ikasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak, irakasleok) partaideak garen sentimendua eta errealitatea lortzeko ahaleginak egin behar ditugula. Denon partaidetza ezinbestekotzat jotzen dugu aurkezten dugun ZPa aurrera eramateko.

Horrela, aurkezten dudan Ikasbidea IPIrako ZPa ongi egituratuta dagoela uste dut:

- Egunetik egunera egokitze aukera ematen du.
- Eskola komunitate osoak ekoiztutako Plan Estrategikoa ildotik sortua.
- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektu sendoan oinarrituta dago.

Ikastetxeko ZPa, beraz, aurreko taldearenaren ibilbidearen jarraipena izango da. Eskerrak eman behar dizkiot gidaritzan aritu den Mikel Morrasi, aurretik jakinda hurrengo ikasturtean Ikasbideak ekingo dion ibilbidean bere laguntza eta babesa eskainiko digula.

IKASBIDEA IKASTOLA IPIko TESTUINGURUA

Ikasbidea Ikastola IPIak ibilbide luzea du. 1973an sortu zen, eta Arabako Foru Aldundiaren esku egon zen, harik eta 1985ean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari transferitu zitzaion arte. Gure ikastola **euskal ikastetxea da, titulartasun publikokoa, integrala eta ez-konfesionala**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena.

2.1 KOKAPENA

Ikasbidea Ikastola IPIren egoitza nagusia **Duranan** dago, Arrazua-Ubarrundiako udalerrian, Gasteiztik 7 kilometrora. **Ikasleen % 75 Gasteiztik dator**; beraz, herriarekin daukagun lotura kokapenarena da: ikasleen egoera soziolinguistikoak ez dauka zerikusirik udalerraren hizkuntza-egoerarekin.

Ikastetxe integrala izanik, **2-18 urte bitarteko irakaskuntza** eskaintzen da. Aipatzekoa da, **2 urteko hiru gelak**, ikastetxearen baliabideekin funtzionatzen badute ere (giza baliabideak eta ekonomikoak), **Gasteizko**

Izarra haur eskolan daudela kokatuta. Horrekin lotuta aipatuko dugu ikastetxearen barnean ere etapa bakoitzak eraikin propioa duela.



Ezkerreko irudian, Duranako egoitza nagusia. Eskuinean, Gasteizko Izarrako HH 2ko eraikina.

2017-2018 IKASTURTEKO IKASLEEN BANAKETA

HAUR HEZKUNTZA						
HH 2 URTE	20	20	21			61
	A	B	D			GUZTIRA
HH 3 URTE	23	23	23			69
HH 4 URTE	23	23	23			69
HH 5 URTE	23	23	23			69
						207
LEHEN HEZKUNTZA						
	A	B	D			GUZTIRA
L.H. 1	25	24	25			74
L.H. 2	26	27	27			80
L.H. 3	23	23	24			70
L.H. 4	27	27	27			81
L.H. 5	27	25	25			77
L.H. 6	25	26	22			73
						455
DBH						

	A	B	D	E	F	DIB I-II	GUZTIRA
1.DBH	22	22	22	21	22		109
2.DBH	20	21	20	20	21		102
3.DBH	22	23	23	22		9	99
4.DBH	19	21	17	19		13	89
							399
BATXILERGOA							
	A	B	D				GUZTIRA
	15	15					30
	21	22	22				65
							95

GUZTIRA: 1.217 ikasle

2.2 IKASLERIA ETA IRAKASLERIA

2014an Hizkuntza Normalizaziorako Proiektua diseinatzeko bildu genituen datuen arabera, ikasleen %26,62ren **jatorrizko hizkuntza** euskara da. 2017ko Ebaluazio Diagnostikoaren (ED) arabera, berriz, portzentaje hori %6,5era jaisten da (LMHko 2. mailako eta DBHko 2. Ikasleak kontuan hartuta). Familia euskaldunen kopurua **nabari jaitsi** egin da azken urteotan izan ditugun ehunekoei erreparatzen baldin badiegu.

Ikasle gehiengoentzat euskara beraien bigarren hizkuntza da. Hori dela eta, gure ikasleen arteko harremanetan gaztelania hizkuntza nagusia izatea eta euren adierazpen maila kezka bide izan dira irakasleontzat azken urteetan.

Hizkuntza egoerari lotuta ere, aipatzekoa da D ereduko ikastetxea izateak ikasle etorkinen oso kopuru baxua izatea dakarrela.

Irakasleen artean oso nabaria da euskararen erabilera, erabatekoa. Administrazio eta zerbitzuetako langileek, lau atezain eta bi administrariak, kontaktua daukate ikasleekin eta harreman horiek euskaraz izaten dira.

ED17ren arabera, Ikastetxearen **Indize Sozioekonomiko Kulturala ertain-altua BHn eta altua LMHn** da. 2015ekoan altua zen bietan. Ikasturte honetan 2017-2018an 301 ikasle bekadun ditugu.

Ikastetxearen izaera integrala, kokapena, Haur Hezkuntzako 2 urteko gelak Gasteizen egotea eta ikasleen %75 baino gehiago garraiatua izan behar izatea dela-eta, etapa guztien kudeaketa era txukunean burutzeak

betidanik suposatu dio eskola komunitateari, eta bereziki hezkuntzako-ikastetxeko langile teknikariei, ahalegin handia. Bereztasun horrek badakar gure ikastetxea berariaz tratatzeko beharra. Horregatik, ezinbestekoa jotzen dugu administrazioaren aldetik babesa eta laguntza ondorengo esparruetan:

- Beharrezkoak ditugun gisa baliabideak modu orekatuan bermatzea (zuzendaritza, proiektuak, formazioa eta administrazioa).
- Haur Hezkuntzako 2 urteko geletarako instalazio egokiak topatzea.
- Batxilergoko ikasleak gure ikastetxean mantentzeko, Hezkuntza Sailak garraio zerbitzua erraztea.
- Metodologia berritze prozesuan murgilduta gaude (HHTik hasita eta hurrengo etapetako lehenengo pausoak emanda) Horren jarraipen zuzena egin ahal izateko, klaustro egonkorra bermatzea.
- Gaur egun, 121 irakaslek osatzen dugu klaustroa (jardunaldi murriztuak zenbatuta).
 - HH - 23 (9 finko, %39).
 - LMH – 38 (24 finko, %63).
 - BH – 60 (26 finko, %43).

Aipatutako horrek guztiak gure ikastetxearen eta euskal eskola publikoaren kalitatearen hobekuntza ekarriko luke.

2.3 BERRIKUNTZA eta ALDAKETAK

Abiapuntu bezala 2015-2016 ikasturtean diseinatu genuen **Plan Estrategikoa** hartu dugu. Horrek ZParen lehenengo bi urteetako helburuak eta horiek lortzeko estrategiak markatzen ditu. Bi urte horien buruan, plana haren osotasunean ebaluatuko dugu eta horren jarraipena izango den hurrengo lau urteetarako PE berria abian jartzea aztertuko dugu. Horrela, sartu beharko den zuzendaritza taldeari lana erraztu ahal izango diogu.

Kalitatezko hezkuntza izateko nahitaezkoa da ikaskuntza-sistema dinamikoak izatea, garatzen den inguruaren arabera egokitu eta aurrera egiten dutenak, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak aldaketa teknologiko, soziokultural zein pertsonalek ekarri dituzten beharrezko erantzuteko moduko bilakaera izango duela bermatuko dutenak. Ikaskuntza dinamikoak ezinbestean behar ditu berrikuntzak, curriculum-egokitzapenak, antolatzeke eredu berriak, etab.

Horren harira, irakaskuntzako **lehenengo etapetan metodologia berritze prozesuan murgilduta** gabiltza. Hausnarketa luzeak eta sakonak egin ondoren, ikasleriarekiko begirada aldatu egin dugu: Ikasle bakoitzak baditu bere gaitasunak eta piztu eta elikatu behar dugu inguruarekiko jakin-mina. Babesa eta zaintza ere behar du, eta nola ez, bizi eta ikastaldeko harremanak eraikitzen ikasiko du gure ikastetxean.

Hurrengo ikasturteei begira, badugu beste erronka handi bat: jasagarritasuna. Horren inguruan hausnarketa sakon baten beharra ikusten dugu eta lan egiten hasteko gogoia dugu.

Gure begirada HH eta LMHko **jangela zerbitzuan** ere jarriko dugu, kalitatea bermatzeko, bere kudeaketa, ahal den neurrian, hobetu nahian eta bazkalorduek hartzen duen denbora-espazioari beharreko garrantzia ematen.

Beste garrantzi handiko aspektu bat, eguneroko jardunari begira, **HH 2 urteko geletako kokapena** da. Egoitza egokia lortzea, martxan jarri dugun metodologia berritzea baimenduko diguna, gure erronka nagusietako bat izango da.

DBHO etapari begira, **eskola garraiorako eskubiderik** ez izateak suposatzen duen traba eta matrikula galera gainditzeko aldarrikapenekin jarraituko dugu Hezkuntza Sailean, ea beharreko laguntza jasotzen dugun Administrazioetik.

Zuzendaritza lanetan aritzeko aukeratzeko prozesuari dagokionez, ikusita ikastetxe publikoetan sortzen duen kezka eta ezegonkortasunari erantzun nahirik, irakasleok zuzendaritzan aritzeko konpromisoa hartzeko, proiektuak pertsonalak ez izateko eta proiektuak aurrera eramanez ahal izateko **bidea markatu** beharko dugu. Zalantzarik gabe, horrek abantaila argiak ekarriko lituzke gure ikastolarako eguneroko jardunean; baita ikastetxearen hezkuntza proiektua aurrera eramateko ere, baina gehien bat, komunitatearen batasun eta elkarlanari begira.

Agerian dago ZP hau, zenbait proposamen berri badauka ere, aurreko taldearen lanaren jarraipena izango dela. Aurrera eramateko, ezinbestekotzat jotzen dugu klaustroaren oniritzia izatea, irakasle gehienak alboan izateko, denon artean beharrei erantzuteko eta haien laguntza izateko.

2.4 BARRUKO eta KANPOKO KOMUNIKAZIOA eta PARTAIDETZA

Orokorrean, familien parte-hartzea eta atxikimendua oso ona dela esan daiteke ikasturte hasierako harreran edo bestelako deialdi orokorrak egiten direnean. DBHn eta, are gehiago Batxilergoan –espero daitekeen bezala-, errendimendu edo portaera arazoak ez badaude tartean, inplikazio maila hori asko jaisten da.

IGEk ikastetxeko eskola komunitatearen estamentu aktiboa da, eta esparru ezberdinetan hobekuntzak egiteko diru-laguntzak ematen ditu eta zenbait ekintza antolatzen ditu: pedagogian, zerbitzuetan, formazioan, etab. Horrez gain, bazkalordurako eskolaz kanpoko ekintzen ardura hartzen dute (horrek denbora horren kudeaketan suposatzen duen laguntzarekin)

Familiak ikastetxeko **OOGan** ordezkatuta daude, eta eskola komunitatean eragina duten erabaki estrategiko zein aldian-aldikoetan parte hartzen dute.

Ikastetxearen partaidetza sare ezberdinetan

- Sarean (Euskal Eskola Publikoetako Zuzendarien Elkarte) 2013-2014tik.
- BIHE Ikastetxe Publikoen Zuzendari Elkarte 2015-2016tik
- Euskal Eskola Publiko Ikastetxeen HEIZE elkartekide.
- Kalitatea Hezkuntzan Sarea 2015-2016tik.
- Berritzeguneko HH-LMHko eta BHko Zuzendaritza Mintegiak.

Aipatutako guztien partaidea izateak, ikastetxearen oinarrizko printzipioak partekatzen laguntzen digu. Urteko Planetan (UP) islatzen diren hausnarketek gure hezkuntza-komunitate osoa motibatuko duten harreman-portaerak garatzen eta jakinarazten dituzte, eta lan-giro atsegin eta konfiantzazkoa bultzatzen dute, azkenean, lortu nahi diren eskola emaitzak eta giro orokor egokia lortzeko bideak dira.

Ikasleen partaidetza

Gaur egun, Ikasleen partaidetza aktiboa da zenbait batzordetan:

- Euskara batzordea.
- Bizikidetzeta eta hezkidetzeta batzordea.
- Berdintasun batzordea.
- Ikastaldeetako ordezkariak.
- OOGa

Haiek protagonistak dira heziketa prozesuan eta espazio-denbora eskaintzen zaie elkarlanean aritzeko.

3. IKASTETXEAREN ZEREGINA, METODOLOGIA ARDATZAK ETA HELBURUAK

Gure zeregina **ikasleen heziketa integrala** lortzea da, bai eremu pertsonalean zein akademikoan, euskalduntasuna sustatzen jarraituz.

Eremu pertsonala eta soziala: Norberaren izaera, autonomia, ikuspegi kritikoa, jarrera ekologikoa eta jasangarria garatu nahi dugu gure ikasleengan. Haien sozializazio prozesuan ere lagundu nahi dugu errespetua, tolerantzia, konpromisoa, berdintasuna eta elkarbizitza positiboa bultzatuz, gertuko eremuan zein zabalean.

Eremu akademikoa: Ikaskuntza prozesua zein ikasketen ibilbide egokia bermatu, gaitasunen garapena ahalbideratzen duen curriculum eskainiz, eta ikastetxean dagoen aniztasunari erantzuna emanaz.

3.1 IKASBIDEA IKASTOLA IPIKO METODOLOGIA ARDATZAK

- Gizarteko erronkei erantzuneko dien **eskaintza akademiko koherentea, zabala eta inklusiboa** eskaintzea.
- Ikasleen **aniztasunari erantzun** egokia ematea, guztien aukera berdintasuna ziurtatuz, bakoitzaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesu anitza kontuan hartuz.
- **Tutoretza, orientazio eta aholkularitza zerbitzua** erabiltzea, ikasleen erabaki prozesuetan lagunduz eta euren gaitasunak kontuan hartuz.
- Ikasleek behar dituzten ezagutzak eta gaitasunak garatzeko, gizatasunean eta elkarbizitza positiboan oinarrituta, **ikaslearen protagonismoa eta autonomia** garatuko duen eredu bultzatzea talde lanaren bitartez.
- Elkarbizitza, hezkidetzeta, berdintasuna: Gatazkak, era positiboan eta konpromisoetan oinarrituta kudeatzen ditugu.
- Osasun arloa, **heziketa afektibo-sexuala**, drogamenpekotasunaren prebentzioa,..
- **Autoestima** eta heziketa emozionala.
- **Heziketa eta praktikak jasangarriak** eta ekologikoak sustatu.

- **Elkartasuna landu:** munduko errealitate desberdinak begirunez aztertu.
- Ikastetxearen kokapenez baliotuz, **ingurugiroaren garrantzia** nabarmendu.
- **Euskal kultura** sentitzea eta bizitzea. Gure ikasleek euskara esparru guztietan erabiltzea.
- **Denon pentsaerak eta izaerak errespetatzea**, guztion ardura eta konpromisoarekin.
- **Ikas komunitatearen estamentu guztien arteko komunikazioa eta harreman estua** izatea. Familien inplikazioarekin kontaktzea.
 - Komunikazioa hobetzeko, **teknologia berriak** erabiltzea.
 - Etapen **koordinazio bertikala** (HH-LMH-DBH-DBHO) eta **horizontala**.
 - Ikastetxe barneko zein kanpoko esperientzietatik ikastea.

3.2. DIAGNOSIA

Pasa den ikasturteko memoria irakurri eta aztertu ondoren antzematen da funtzionamendua ona izan dela, baina zenbait aspektu daude **hobetu beharrekoak**:

- Geroari begira esperientzia berriak abian jarri.
- HH 2 urteko geletarako egoitza egokia bilatu.
- Eleaniztasuna bultzatu hizkuntza trataera bateratuan oinarrituta. Hizkuntza proiektua aztertu eta eguneratu.
- Ikastetxeko irakasleak ez diren eta ikasleekin harreman zuzena duten langileen formazioa bermatu gatazken ebazpenen inguruan.
- Ikasleei buruzko informazio era eraginkorragoan kudeatzen jarraitu.
- Kanpoko esparruen birmoldaketa Elkarbizitza eta Hezkidetzaren ikuspuntutik.
- Jasangarritasunaren inguruan hausnarketa egin eta konpromisoak hartu.
- Bizikidetzaren bermatzeko prozedurak finkatzen eta sendotzen jarraitu. Elkarbizitza Plana berri.
- Zikloen arteko eta etapen arteko koordinazioa hobetu. Estamentu guztien elkar trukaketako informazioaren estrategiak aztertu eta bultzatu.
- Familiekiko hartu-emanak hobetzen jarraitu. Gurasoen partaidetza bultzatu.
- Ikaslearen bilakaeraren informazio bideak hobetzen jarraitu: ikastetxea-irakaslea-tutorea-familia.
- Ikasleak ikastetxearen parte sentitzea, ez soilik dauden arauak betetzeko, baizik eta aldaketak proposatzeko eta helburu berdinak dauzkagunez, lortzen laguntzeko.
- Bigarren hezkuntzarako 3. eta 4. mailako ikasleak ikastolarekiko lotura hobetu.
- BHRako ikasleak erakarri.

3.3 FUNTZIONAMENDU EREDUA

- Zuzendaritza taldeak lidergoa eraman, funtzionamendua talde lanean eta elkarrizketan oinarrituta. Adostasuna bilatu.
 - Estamentu guztien partaidetza bultzatu. Horretarako, gure arteko komunikazioa erraztu.
 - Eskola komunitatearen proposamenak, ekarpenak eta kritikak entzuteko prest egon.
 - Irakasle, familia eta ikasleekin ardurak banatzen saiatu, ikastetxea guztion proiektua izan dadin.
 - Nork bere iniziatibaz komuneko proiektuan lekua izaten saiatu.

- Zuzendaritzak ikastetxeko eragileen artean, eta bereziki irakasleon esku, utziko ditu hainbat ardura zehatz, lan ordutegian behar bezala jasoko direnak.
- Bizikidetza alorrean, berariazko sortutako tresna "Info-Path" en bidez elkarriketan oinarritutako akordio eta erabakiak hartzen jarraitu, ikasle, familia, tutore eta irakasleen esku hartze eta konpromisoa indartuz.

4. HELBURUAK ETA EBALUAZIOA

4.1 HELBURU OROKORRAK

Helburuak hautatzeko 2016-2020 ikasturteetarako egindako Plan Estrategikoaren zeregina eta helburu nagusiak, IHPan islatuta daudenak hartu ditugu kontuan. Horretaz aparte, diagnosiaren ondoren beste batzuk gehitu ditugu.

HELBURUA 1: ikasleak etorkizunerako era integralean hezitzea eta prestatzea, beraien aniztasuna kontuan hartuta eta euskalduntzean oinarrituta

ESTRATEGIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA			
				18-19	19-20	20-21	21-22
<p>Hezkuntza eskaintza zabala eta inklusiboa eskaini , aniztasunari erantzuna emanez eta guztien aukera berdintasuna ziurtatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gelako aniztasuna duten ikasleen txostenak egin eta irakasleak informatu. - Laguntza gela barruan eman. 	<p>Zuzendaritza taldea Orientazioa Klaustroa</p>	<p>Ikastetxeko giza baliabideak</p>	<p>Balorazioa egin galdetegiak erabiliz egindakoak ondo funtzionatu duen edo ez ondorioztatzeko.</p>				
<p>Tutoretza, orientazio eta aholkularitza zerbitzua indartu, ikasleen erabaki prozesuetan lagunduz.</p>	<p>Orientazioa</p>	<p>Tutoretza plana</p>	<p>Galdeketak egin eta arduradunen balorazioetatik ondorioak atera</p>				
<p>Ikasleen ezagutzak eta gaitasunak garatzeko , elkarbizitza positiboan oinarritzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gatazkak era positiboan eta konpromisoetan oinarrituta kudeatu. - Autoestima eta heziketa emozionala landu 	<p>Zuzendaritza Talde dozentea Orientatzailea</p>	<p>Elkarbizitza Plana Infopath Kanpoko monitoreen ikastaroak</p>	<p>Egindako ikastaro eta ekintzen balorazioa galdetegiak erabiliz.</p>				
<p>Euskara ikastetxeko irakaskuntzaren berezko hizkuntza izanik, ikasleek esparru guztietan erabiltzea lortu, Euskara Batzordea indartzuz. Euskal kulturaren inguruan ikasleen inplikazioa indartu</p>	<p>Klaustro osoa</p>	<p>Ekintza osagarriak Ulibarri proiektua</p>	<p>Hizkuntza normalkuntza batzordeak egiten diren diagnosiaren balorazioa egin. Antolatzen diren ekintzen inguruko galdetegiak pasatu eta ondorioak atera.</p>				

HELBURUA 2: hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea, elkarlana, koordinazioa eta komunikazioa sendotu bizikidetza positiboaren ildotik

ESTRATEGIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA			
				18-19	19-20	20-21	21-22
Ikastetxe eta familien arteko harremanak sendotu, seme alaben beharrei hobeto erantzuteko. Komunikazioa hobetzeko teknologia berriak erabili.	Zuzendaritza Tutoreak Irakasleak	Familiekin bilerak Teknologia berriak	Galdetegiak pasatu familiei ondorioak atera eta balorazioa egiteko.				
Ikasle, familia, irakasle eta irakasleak ez diren arteko komunikazioa eta harremanak indartu, dagokien organoen bidez eta iritzi guztiak aintzakotzat hartuz.	Hezkuntza-komunitatea	Ikastetxeko organo desberdinak: klaustroa, OOG, Behatokia, bilerak, ...	Balorazio-galdetegiak egin ondorioak atera eta balorazioa egin.				
Etapen guztien arteko koordinazioa indartu eta baita etapen barneko zikloena ere.	Ziklo koordinatzaileak Ikasketa buruak Tutoreak Orientatzailea eta aholkulariak	Tutore bilerak Mintegi bilerak Zuzendaritza bilerak Elkarbizitza Batzordea	Ikastolako partaideen koordinazioa indartzea lortu den jakiteko, galdetegiak pasatu parte-hartzaileen artean.				
Elkarbizitza plana aurrera eraman eta Behatokiarekin lanean jarraitu. Balizko "bullying" kasuetan indarrean dagoen protokoloak aplikatu.	Behatokiko kideak Orientatzailea Zuzendaritza taldea Tutoreak	-Barne eta kanpoko giza baliabideak -Protokoloa - Elkarbizitza plana	Landutakoaren balorazio -galdetegiak, arduradunen balorazioak, memoriak.				
Bigarren Hezkuntzako 3 eta 4.mailako ikasleek ikastolarekiko duten lotura hobetu.	Zuzendaritza	Esparruak eta denborak zehaztu ikasleekin elkartzeko.	Galdetegia pasatu ikasleei iritzia ezagutzeko				
Bigarren Hezkuntzako ikasleak erakarri	Zuzendaritza	Esparruak eta denborak zehaztu ikasleekin elkartzeko.	Galdetegia pasatu ikasleei iritzia ezagutzeko				

HELBURUA 3: arlo pedagogikoa, antolaketa eta kudeaketa etengabeko hobekuntza sistemaren bidez lantzea

ESTRATEGIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA			
				18-19	19-20	20-21	21-22
Batzorde pedagogikoak berrantolatu, arlo pedagogikoan berrikuntza eta hobekuntzak indartzeko.	Zuzendaritza Mintegi buruak	Barneko eta kanpoko giza baliabideak	Egindako berrikuntzen balorazio inkestak egin.				
Ikasleen protagonismoa eta autonomia garatu elkarreragina eta talde lanaren bitartez, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza bermatzeko.	Irakasleak	Teknologia berriak Giza baliabideak	Balorazio inkestaren bidez				
HH 2 urteko geletarako egoitza egokia eskuratzeko beharrezko pausoak eman.	Zuzendaritza	Bilerak Hezkuntza Saileko Ordezkariekin.	Balitzko proposamenak aztertu				
Euskara ardatz hartuta, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sendotzen joan.	Irakasleak Normalkuntza Batzordea	Barne baliabideak Teknologia berriak Hizkuntza proiektua	Balorazio inkestaren bidez				
Ikasgelan eta patioan kalitatezko zerbitzua gauzatzeko, pertsonen, instalakuntzen, IKTen eta baliabide materialen kudeaketa eraginkorra lortu.	Zuzendaritza	Barne eta kanpoko giza baliabideak	Egin diren aldaketak eta berrikuntzak baloratuko dira galdetegien bidez.				
Antolaketa eta kudeaketa ekonomikoan gardentasuna.	Idazkaria	Programa informatikoak Giza baliabideak	Egindako galdeketa eta balorazio inkestak				
Eskolako jantoki zerbitzua hobetzen saiatu egungo eskakizunei erantzuna emanaz.	Zuzendaritza Jantokiko arduraduna	Giza baliabideak	Egungo eskakizunei erantzuna eman zaiela ebaluatzeko galdetegiak pasatu eta baloratu.				

HELBURUA 4: gizartearen eskakizunei aurre egiteko langileak gaurkotu. Horretarako beharrezkoa den formazioa bermatu eta dauzkagun erronkei erantzuna eman

ESTRATEGIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA			
				18-19	19-20	20-21	21-22
Irakasleen formazio eraginkorra bultzatu, beharrak identifikatuz eta horiei erantzuteko baliabideak jarri.	Zuzendaritza	Barneko eta kanpoko giza baliabideak Berritzeguneko aholkularitza	Egindako formazioen balorazio inkestak				
Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan lagungarri diren metodologia berriak jorratuko dira, ikasleek garatu beharreko konpetentziak kontuan izanik.	Irakasleak Zuzendaritza	Teknologia berriak Giza baliabideak Kanpoko adituen hitzaldiak Berritzeguneko aholkularitza	Balorazio inkestak bidez				
Langileen konpromisoa hobetzeko lan giro atsegina, ilusioa eta elkarlana bultzatu.	Irakasleak Zuzendaritza	Barneko giza baliabideak	Balorazio inkestak bidez				
Ikastetxe barruko esperientziak elkartrukatu eta beste ikastetxe batzuekin partekatu	Kalitate arduraduna Mintegiak Irakasleak Ziklo koordinatzaileak	Barneko eta kanpoko giza baliabideak Egindako lan eta proiektuen erakusketak Kalitate Sarea	Esperientzia trukaketen balorazioak egin galdetegiak erabiliz.				

HELBURUA 5 : ikastetxeko hizkuntza proiektua berritzea

ESTRATEGIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA			
				18-19	19-20	20-21	21-22
PLANIFIKAZIO FASEA: Faseak, ardurak eta kronogramak zehaztuko dira.	Zuzendaritza eta Hizkuntza proiektuaren batzordea	-Aurreko hizkuntza proiektua -Hizkuntza proiektuaren kronograma antolatzeko txantiloia	Planifikazio fasearen amaieran galdetegiak erabiliz ebaluazioa egin.				
SENTSIBILIZAZIO FASEA: Irakasleak eta Hezkuntza-komunitate prozesuan inplikatzeko jarduerak planteatuko dira.	Klaustroa da arduradun nagusia baina hezkuntza komunitate osoari dagokio	-Galdetegiak erabiliko dira iritziak jasotzeko.	Sentsibilizazio fasearen amaieran jasotako emaitzen balorazio bat egin erabakiak hartzeko.				
DIAGNOSTIKO FASEA: - Ikasleen inguruaren eta ikastetxearen analisi soziolinguistikoa egin. - Hizkuntzen erabileraren eta praktika didaktikoen analisia egin ikastetxean. - Ebaluazioen emaitzen analisia - Gaur egungo egoeraren analisia eta hizkuntzen inguruan ikastetxeak egin duen ibilbidea aztertu.	-Hizkuntza Proiektuaren batzordea ondorengoek lideratua: <ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza Normalizazioko batzordekideak.• Hizkuntza arloko irakasleak.	-Galdetegiak pasatuko dira Hezkuntza komunitate osoaren inguruan, hizkuntzari dagokionez, interesatzen diren datuak biltzeko. -HNPea egindako diagnosis ere baliagarria izango da.	Diagnostiko fasearen amaieran ebaluazioa egin galdetegiak erabiliz.				
GARAPEN FASEA: - Diagnostikotik datozen datuen azterketa eta balorazioa egin. - Erabakiak hartu eta jardura proposamenak zehaztu. - Hezkuntza komunitateari jakinarazi - Beharrezko egokitzapenak egin	- Hizkuntza proiektuaren batzordea.	- Datuen bilketa egiteko eta horiek interpretatzeko hainbat tresna informatiko. -HNPa	Galdetegien bidez ebaluazioa egin.				
EBALUAZIOA FASEA: Proiektuaren ebaluazioa egingo da, ondorioak atera eta proposamen berriak jaso.	Hezkuntza komunitate osoa	Ebaluatzeko taula bat erabiliko da.	Emaitzetan izan duen eragina ebaluatu.				

HELBURUA 6: ingurugiroak gure gizartean eta egunerokotasunean duen garrantziaz jabetu eta eskola komunitate osoaren inplikazioarekin jasagarritasunaren inguruan dauden erronkei erantzuna eman

ESTRATEGIAK	ARDURADUNAK	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA			
				18-19	19-20	20-21	21-22
SENTSIBILIZAZIO FASEA. Irakasleak eta Eskola komunitatea jasagarritasunaren inguruan hartzen diren erabakiekin inplikatzeke jarduerak planteatu.	Zuzendaritza	Galdetegiak erabiliko dira eskola komunitatearen iritziak jasotzeko.	Galdetegietatik jasotako informazioarekin ebaluazioa egingo da.				
Eskolak eguneroko funtzionamenduan jasagarritasunaren arloan zein egoeratan dagoen aztertzeke DIAGNOSIA burutu.	Zuzendaritza	Barneko eta kanpoko giza baliabideak Inguru gelako aholkularitza	Egindako diagnosiaren balorazio inkestak egin eta ondorioak atera				
Diagnosian lortutako emaitzekin helburuak finkatu eta horiekin lanean hasiko da. Batzorde bat sortu eginbeharrak kudeatzeko.	Zuzendaritza Batzordea	Barneko eta kanpoko giza baliabideak	Galdetegien bidea egingo da.				
Hartutako erabakiak eta finkatutako helburuak ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan txertatu.	Zuzendaritza	Hezkuntza Proiektua eta ikastetxeko giza baliabideak.	Hezkuntza Proiektuan txertatzea hartutako erabakiak.				
Posible bada Eskolako Agenda 21 proiektua martxan jarri	Zuzendaritza Batzordea	AG 21 proiektua egiteko inguru gelako aholkularitza Giza baliabideak	Klaustroaren erabakia bozketa bidez egin eta iritziak jaso.				

4.2 HELBURUEN EBALUAZIOA

Ikasturte bakoitzari dagozkion helburuak eta horiek lortzeko jarduerak Urteko Planean islatuta egongo dira eta Urteko Memorian lortze maila islatuko da. Hori ebaluatzeko burutzen diren ekintza guztien balorazioa egingo da, galdetegiak eta formularioak eginez. Formulario horiek *G-Suites* aplikazioarekin egingo ditugu, bai galdetegiak sortzeko, bai emaitzak baloratzeko.

Ikasturte desberdinetan zehar egiten den lana eta erabakien inguruan jasotako kritikak jaso ahal izango ditugu, horietatik ikasteko eta ikuspegi zabalagoa izateko. Beraz, ebaluazioa tresna ezinbestekoa izango da akatsak eta behar berriak antzemateko, hurrengo ikasturteari begira beharrezkoak diren moldaketak edo aldaketak egiterakoan.

4.3 PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Proiektu hau ebaluatzeko estrategia honako hau izango da:

- Urtez urte planteatu diren helburuak eta beraiekin lotuta dauden ekintzak zein neurritaraino bete diren, Urteko Memoria bakoitzean adieraziko da.
- Ikasturte hasiera bakoitzean, Urteko Plana egiterakoan, aurretik egindako ebaluazioak ekarritako moldaketak sartuko ditugu. Horrez gain, beste behararren bat ikusten badugu, momentua izango da gehitzeko.
- Hala ere, ebaluazioa jarraitua izango da beti, beharren arabera ebaluatu, moldatu, hobetu, gehitu...
- Azkeneko ebaluazioa proiektuaren amaieran burutuko da. Oso inportantea da momentu horretarako zein izango diren hurrengo taldeko partaideak jakitea, elkarlanean ebaluatzeko aurretik egindako guztia eta, eskolaren egoera aztertuta, erronka berriak finkatzeko.
- Espresuki honetarako sortutako galdetegiak eta formularioak erabiliko dira Hezkuntza Komunitate osoak, bakoitzari dagokion atalean eta tauletan agertzen den moduan, aipatutako ebaluazio guztiak egiteko.

5. HAUTAGAIAREN CURRICULUMA